

Zergatik ezetz esaten dut energia nuklearri?

www.yosoyantinuclear.org

GREENPEACE

yosoy
antinuclear
.org
yosoy
antinuclear
.org
yosoy
antinuclear
.org
yosoy
antinuclear
.org
yosoy
antinuclear
.org

greenpeace.es

Energia nuklearra energia-eredu iraunkor batekin bateraezina da, ez duelako betetzen haren baldintza bat ere: ez da ez eraginkorra ekonomia-arloan, ez bidezkoa gizarte-arloan, ez onargarria ingurumen-arloan.

Are gehiago, energia nuklearrak porrot egin du ekonomia, teknologia-, ingurumen- eta gizarte-arloan, eta kalte larriak egin dizkie dagoeneko osasun publikoari eta ingurumenari: ezbehar nuklearrak eta ezin deuseztatzeko hondakin erradioaktiboak sortzea; gainera, arma nuklearrak ugaritzea dakar.

Energia nuklearra oso arriskutsua

da. Txernobilgo tragediak erakutsi zuzenez, kalte egiteko eta hondamendiak eragiteko ahalmena du energia-iturri honek. Hondamen haren ondorioz askatutako erradioaktibitateak milaka kilometro egin zituen, nolanhiko mugez gaindi, eta dozenaka mila hildako eragin ditu jadanik. Gainera, kaltetu asko eta asko utzi ditu; oraindik ere, zaila da zenbat balioztatzea.

Zentral nuklearrak terroristen jomuga izan daitezke.

Arrisku handiko instalazioak dira, eta, gainera, litekeena da material nuklearrak desbideratzea estatu jakin batzuetan arma atomikoak fabrikatzeko –esate baterako, horixe gertatu da Indian, Pakistanen, Israelen, Ipar Korean...– edo terroristen helburuetarako. Arma nuklearrak behin betiko deuseztatzeko ahaleginei azpiak jaten dizkie horrek.

Energiarik zikinena da. Zentral nuklearrak hondakin erradioaktiboak sortzen dituzte. Dozenaka mila urtetan dira arriskutsuak hondakinok, eta oraindik ez dugu ebatzi haiek kudeatzeko, tratatzeko edo/eta deuseztatzeko arazoa. Industria atomikoa ez da gai izan proposamen tekniko egoki eta seguru bat aurkitzeko arazo larri horri aurre egiteko.

Gainera, martxan dauden bitartean, erradioaktibitatea igorri ohi dute ingurumenera, bai egoera likidoan, bai gas-egoeran. Gas-egoeran dagoen erradioaktibitatea atmosferara heltzen da, eta egoera likidoan dagoena, itsasoetara, ibaietara eta urtegieta; horiek

behar ditu hozteko. Kutsadura da hori, eta kalte egin diezaioke osasunari, nahiz eta erradioaktibitatea ezin den ez sentitu, ez ukitu, ez ikusi, ez entzun, ez usaindu.

ekoizten den energia-unitateko lanpostu gutxien sortzen duen energia-iturria da.

Edozein energia berriztagarrik baino lanpostu gutxiago sorrarazten ditu energia nuklearrak. Langile Komisioek (CCOOK) 2008ko otsailan argitaratutako txosten bateko datuen arabera, energia berriztagarrien sektoreak zuzeneko 89.000 lanpostu (eta zeharkako 99.681) sortzen ditu Espainian, sektore nuklearrak halako hamar.

Gizartearen gaitzespena. Iritzi-inkestek diotenez, Espainiako herritar gehientsuenak elektrizitate sortzeko modu honen kontra daude.

Oso energia garestia da. Iraungo badu, Estatuak diru-laguntza handiak eman behar ditu etengabe. Esaterako, Hondakin Erradioaktiboan Espainiako Enpresaren (Enresaren) kalkuluen arabera, hondakin erradioaktiboak kudeatzea 13.000 milioi euro baino gehiago ere kostako da Espainian 2070era bitartean; dirutza da hori hain denbora gutxirako, eta herritarrok ordaintzen ari gara nagusiki, elektrizitatearen tarifaren bitartez.

Finlandiako egoerak argi eta garbi adierazten du zer garestia eta arriskutsua den energia mota honetan inbertitzea, eta erakusten du ezinezkoa dela zentral nuklear

bat eraikitzeko denbora (batez beste, zortzi eta hamar urte artekoa) laburtzea eta inbertsioaren kostu handiak nabarmen murriztea. Olkiluoto-III zentral nuklearra (European Pressurized Reactor bat, AREVA Frantziako estatuaren konpainia publikoa Finlandian egiten ari den erreaktore nuklearraren modelo berria, "hirugarren belaunaldikoa") "pizkunde" nuklear sonatuaren adierazgarri nagusia da.

Bada, egia esan, agerikoa da proiektuak porrot egin duela alde guztietatik: 2008ko urrian, zentrala eraikitzen hasi eta hiru urte geroago, AREVAk hiru urteko atzerapena baino luzeagoa onartu du dagoeneko ofizialki aurrez ikusitako egutegiaren aldean, eta gainkostua milioi askokoa izango dela; finantza-arloko iturriek aitortu dutenez, zentrala 5.500 milioi eurotik gora kostako da, hasiera bateko aurrekontuaren arabera 2.500 milioiak baino askoz ere gehiago.

Energia nuklearra ez da beharrezkoa.

Alemaniako eta Suediako egoerek frogatzen dutenez, borondate politikorik badago, litekeena da energia nuklearra alde batera uztea eta, aldi berean, CO₂ isuriak murriztea, Kyotoko Protokoloarekin bat. Adibidez, Alemania munduan lehena da energia eolikoa ekoizten, eta eguzki-energia fotovoltaikoa sortzeko hango instalazioa Espainiakoa halako hamabost da, Eguzkiaren batez besteko irradiazioa Espainiakoa baino askoz ere txikiagoa izan arren.

Zientzialariek frogatu dutenez, teknika eta ekonomia aldetik bideragarria da %100 energia berriztagarrietan oinarritutako sistema bat erabiltzea elektrizitatea sortzeko. Bestalde, Greenpeacek txosten bat (%100 berriztagarriak. Iberiar penintsulako Espainiarako sistema elektriko berriztagarria eta haren bideragarritasun ekonomikoa) eskatu zion Comillas Unibertsitate Pontifikaleko Ikerkuntza Teknologikoen Institutuari, eta, haren arabera, teknologia berriztagarriak (eguzki-energia termoelektrikoa, lurreko energia eolikoa, itsasoko energia eolikoa, biomasa, eguzki-energia fotovoltaikoa, energia hidroelektrikoa, uhinen energia eta energia geotermikoa) askotara konbinatuz, litekeena da penintsulako Espainiako behar elektrikoaren %100i erantzutea, egunean 24 orduz, urtean 365 egunez, betiko teknologietan oinarritutako sistema baten kostua baino txikiagoaren trukean gainera.

Sistema elektrikoaren esparruan nola funtzionatzen duten ikusirik, zentral nuklearrak eragozpen handia dira energia berriztagarriak eskala handian ezartzeko.

Energia nuklearrak ez du salbatuko klima.

Energia nuklearra inoiz ere ez da izango ekonomiaren aldetik bideragarria eta eraginkorra CO₂ isuriak murrizteko eta, hartara, klima aldaketaren aurka borrokatzeko.

Energia aurrezteko eta eraginkorra izateko neurrietan inbertitzen dugun euro bakoitzari esker, euro hori zentral nuklearrak eraikitzeko erabiliko bagenu halako zazpi murriztu ditzakegu CO₂ isuriak.

Bestalde, frogatu dute, elektrizitatea sortzeko teknologia ez-fosilen (alegia, energia nuklearraren eta energia berriztagarrien) ziklo osoa kontuan hartuz, energia nuklearrak edozein energia berriztagarrik baino CO₂ gehiago isurtzen duela sortzen den kWh bakoitzeko. Izan ere, erregai fosil ugari erabiltzen da ziklo nuklearreko etapa guztietan: uranioa meategietatik ateratzeko; erregai nuklearra fabrikatzeko; zentral nuklearrak eraikitzeko, mantentzeko eta, ondoren, eraisteko; hondakin erradioaktiboak kudeatzeko...

Energia nuklearrak ez du zereginik petrolioarekiko gure mendekotasuna nabarmen murrizteko, petrolioaren garraio-sektorean erabiltzen baitugu nagusiki. Horregatik, konponbidea beste neurri batzuk dira: lurraldea egokiro antolatzea, pizgarriak ematea garraio publiko kolektiboak eta motorrik gabeko garraio bideak erabiltzeko, motorrak eraginkorragoak izatea, ibilgailuen pisua eta potentzia txikiagotzea, beste sektore batzuk (hala nola, energia berriztagarrietatik sortutako hidrogenoa) erabiltzea...

Mendekotasuna sortzen du energia-

arloan. Espainiako zentral nuklearretan erretzen duten uranioaren %100 inportatu egiten dute, eta hortaz, Espainia atzerriaren mendean dago erabat alde horretatik.

Ziklo nuklearraren oinarritzko beste fase batzuetan ere dago atzerriko herrialdeen mendean erabat, hala nola, erregaiaren aberasteko. Egoera berdin-berdina da teknologiaren beste alor batzuetan, eta erreaktoreen diseinuak, erregaiak fabrikatzeko patenteak, etab. atzerrian egindakoak dira.

Uranioa agortu egiten ari da. Uranio-235 isotopoaren (erreaktore nuklearretako erregaiaren) erreserbek hainbat hamarkada gehiago bakarrik iraungo dute, kontsumoaren erritmoak egungoa izaten jarraitzen badu eta erreaktore gehiago egiten ez badituzte –gaur egun, ia 440 erreaktore daude munduan–, baina, munduko instalazio nuklearren kopurua handiagotzen badute, are gutxiago iraungo dute.

Energia nuklearra alde batera uztea borondate politikoa izatearen kontua da besterik gabe, ez baitago horren kontrako arazo tekniko edo ekonomikorik edo energia-arloko arazorik eta komenigarriena baita segurtasunaren eta ingurumena eta osasuna babestearen ikuspegitik.

Aurreko hauteskunde orokorrak irabazteko, PSOEek hainbat promes egin zituen, eta horietako bat izan zen zentral nuklearrak pixkanaka ixtea eta, hauteskunde-programak zioenez, “kostu txikiagoko energia garbi eta seguruak” erabiltzen hastea haien orde.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Gobernuari eskatu diot zentral nuklearrak pixkanaka baina lehenbailehen ixteko plan bat abian jartzeko (eta, lehenik, Garoña ixteko, berehala, zahar eta arriskutsuena baita), eta energia-sistema iraunkor bat lortzeko beharrezko neurriak hartzeko, %100 energia berriztagarrietan eta energiaren aurreztean eta eraginkortasunean oinarritutakoa.



PAPEBEN 100% FOSTONSUJMO BIRZIKLATUVA ETA KILOHO ASKEA INPRIMATUA.

yosoyantinuclear.org



Sartu www.yosoyantinuclear.com orrian.
Egin bazkide www.greenpeace.es orrian
edo deitu **902 100 502** telefono-zenbakira.
Eman laguntza participa@greenpeace.es
helbidean.



GREENPEACE

Greenpeace erakunde independentea da eta, indarkeriarik erabili gabe, zuzeneko ekintza erabiltzen du ingurumenaren gaineko mehatxuak azaltzeko, eta etorkizun berdea eta bakezkoa lortzeko irtenbideak bilatzen ditu.

Informatu; hasi gauza errazetatik eta, pixkanaka-pixkanaka, pasatu zailetara; ezagutu beste bide batzuk.

Greenpeace
San Bernardo 107, 1^a planta
28015 Madrid
Tel. zk.: 91 444 14 00
Fax zk.: 91 447 15 98

Ortigosa 5, 2^o 1
08003 Barcelona
Tel. zk.: 93 310 13 00
Fax zk.: 93 310 43 94

www.greenpeace.es